



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRETERIAKO UDALA

Giza Baliabideak

Erreterriako Udaleko 2022rako lanpostuen zerrenda eta langileen plantila.

Udalbatzak, 2021eko abenduaren 15ean eginiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Udalaren 2022ko Aurrekontu Orokorrari, zeinak Udaleko eta Erreterria Musikal Udal Patronatuko langile-plantillak jasotzen baititu.

Jendaurrean egondako garaian inork ez duenez erreklamaziorik egin, behin-betikotasunez onartuta dago.

Beraz, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 127. artikuluan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan jasotakoaren arabera, 2022rako Erreterriako Udaleko lanpostu-zerrenda eta langile-plantila argitaratzen dira.

I eta II eranskinetan jasotzen dira 2022rako lanpostuen zerrendan eta langile-plantilan 2021. urtearekiko eginiko aldaketak.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsio jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsio, dagokion Administrazio Auzietarako Auzitegian, bi hilabeteko epean, akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik, berraztertzeke errekurtsioa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Erreterria, 2022ko urtarrilaren 20a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketa ordezkaria. (354)

I. ERANSKINA

Lanpostuen Zerrenda (2022ko aldaketak)

2022rako Lanpostuen Zerrendan 2021. urtearekiko eginiko aldaketak (2021-05-31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) ondorengoak izan dira:

— Eguneratu dira berriazko osagarriaren zenbatekoak lanpostu guztietan.

* Lanpostu berriak edota dotazioen sorrera.

— ZU! Zerbitzuko arduraduna (2605.1): lanpostuaren izena aldatzen da: «ZU! Zerbitzuko koordinatzailea» izango delarik. Gainera, lanpostuaren bigarren dotazio bat sortzen da.

— Informazio eta tramitazio agentea (2606): lanpostuari dotazio berri bat gehitzen zaio.

— Kulturako erdi mailako teknikaria (4118).

— Ikus-entzunezko eta eszenatokiko teknikari laguntzailea (4119): lanpostua sortu da bi dotazioekin.

— Aholkulari juridikoa (5155).

— Administraria (5211): lanpostuaren dotazio berri bat sortu da.

— Administraria (6016): lanpostu berri bat sortu da hiru dotazioekin.

— Udaltzaingoko agentea (7108): lanpostu honen dotazio bat sortu da.

* Lanpostuen edota dotazioen ezabaketa.

— Informatikako goi-mailako teknikaria (2500): lanpostua ezabatu egin da.

— Kulturako administraria (4111): lanpostua ezabatu egin da.

— Liburutegiko urgazlea (4132.2): dotazio hau ezabatu da.

— Liburutegiko laguntzailea (4133.1): dotazio hau ezabatu egin da.

— Aholkulari juridikoa (5150): lanpostua ezabatu egingo da hutsik gelditzen denean.

— Administrari laguntzailea (5154.3): lanpostuaren dotazio hau ezabatu egin da.

— Administrari laguntzailea (5212.2): lanpostuaren dotazio hau ezabatu egin da.

— Administrari laguntzailea (6012.3): dotazio hau ezabatu egiten da 2022-01-31n.

— Udaltzaingoko agentea (7107): lanpostu honen dotazio bat ezabatu da.

* Ezaugarriak aldatu zaizkien lanpostuak edota dotazioak.

— IKTko arduraduna (2603.1): lanpostuari dedikazio berezia jartzen zaio, zehazki 3. graduoko lanaldi luzatua (% 10).

— Informatikako teknikari espezialista (2502): dotazio bat bereizten da, dedikazio berezia jarriz, zehazki, 3. gradua duen erdi mailako disonibilitatea (% 10a).

— Informatikako teknikari espezialista (6015.1): Lanpostua Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) departamentura atxikitzen da (lehen Gizarte Zerbitzuak departamentuan zegoen).

— Ogasuna eta Garapen Ekonomikoko goi mailako teknikaria (3013.1): lanpostua ireki egiten da edozein Administrazio Publikoko karrerako funtzionarioak betetzeko aukera emanaz.

— Udaltzaingoko lehen agentea (7103): lanpostuak jarrita zuen dedikazio berezia kendu egiten da.

* Denboraldi baterako lanpostuen zerrenda.

— Patchwork-eko monitorea (4.1): lanpostua ezabatu da.

— Gizarte Zerbitzuetako koordinatzailea (2.1): lanpostua ezabatu da.

— Etxeetako laguntzailea (1.5): dotazioa ezabatu da.

II. ERANSKINA

Langileen plantila (2022ko aldaketak)

2022rako langileen plantilan 2021. urtearekiko eginiko aldaketak (2021-05-31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) ondorengoak izan dira:

A) Plazen sorrera:

1. Funtzionarioak:

— 5 administrari, C1 sailkapen taldekoak eta Administrazio Orokorreko eskalakoak, Administrari azpieskalakoak.

— 2 erdi mailako teknikari, A2 sailkapen taldean kokatuak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoak eta Betebehar Bereziak dituzten lanpostuak klasekoak.

— 2 teknikari laguntzaile, C2 sailkapen taldean kokatuak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoak eta Betebehar Bereziak dituzten lanpostuak klasekoak.

B) Plazen ezabaketa:

1. Funtzionarioak:

— 2 administrari laguntzaile, C2 sailkapen taldekoak eta Administrazio Orokorreko eskalakoak, Laguntzaile azpieskalakoak (hoietako bat 2022-01-31ko eraginarekin).

C) Ondoko lanpostua iraungitzea deitzen da:

1. Funtzionarioak:

— Garbitzaile bat, PT sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoa eta Betebehar Bereziak dituzten lanpostuen klasekoa.

